



**GRADU AMAIERAKO
LANA**

2013- 2014 Ikasturtea

Lehenengo deialdia

GKE ETA KIROL PRAKTIKAK: ZAILTASUN SOZIALAK DITUZTEN INGURUNE TXIROETAN EMATEN DIREN PROIEKTUEN ANALISIA

Egilea: JAVI OTXANDORENA GENUA

Zuzendaria: ASIER OIARBIDE GOIKOETXEA

AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	1
1.1.- Helburuak	3
1.2.- Metodologia	4
2.- GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDE ETA KOOPERAZIOAREN MARKO TEORIKOA	5
2.1.- Definizioak	5
2.2.- Historia eta eboluzioa	6
2.2.1- Nazioartean	6
2.2.2- Estatuan	7
2.2.3- Euskal Autonomi Erkidegoan (E.A.E)	9
2.3.- Garapenerako Kooperazioa.....	11
2.4.- Kirola Garapenerako Kooperazioan.....	12
2.4.1- Kiolaren definizioa	12
2.4.2- Kirola eta kooperazioa, tratatu eta konferentzia ezberdinen babesean.....	13
2.4.3- “Kiolaren” onurak	15
2.5.- E.A.E-ko Kooperazioa.....	16
3.- “KIROLA” KOOPERAZIOKO PROGRAMETAN BARNERATZEN DUTEN ERAKUNDE EZBERDINEN ANALISIA ETA EZTABAIDA	23
4.- ONDORIOAK	35
5.- BIBLIOGRAFIA	38
6.- ERANSKINAK	42
6.1.- I. Eranskina: Magglingeneko deklarazioa	42
6.2.- II. Eranskina: ONU IYSPE Oficce	43

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula: Bilaketa bibliografikoan erabilitako hitz-gakoak hiru hizkuntza desberdinetan	4
2. Taula: Erakunde ezberdinen datu orokorrak	24
3. Taula: Lan- eremua	25
4. Taula: Kirolean oinarritutako erakundeen eta Eusko Jaurlaritzaren garapenerako kooperaziorako lan- eremuen konparaketa	27
5. Taula: Eskainitako proiektuak nori zuzenduak dauden	29
6. Taula: Eskainitako jardueren motako analisiaren kanpo geratu diren erakundeak eta berauen jarduerak	30
7. Taula: Proposatutako jarduera motak	30
8. Taula: Kirol praktikez kanpoko zereginak	32

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Grafikoa: Lan- eremua	26
2. Grafikoa: Eskainitako proiektuak nori zuzenduak dauden	29
3. Grafikoa: Proposatutako jarduera motak	31
4. Grafikoa: Kirol praktikaz kanpoko zereginak	33

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia: Greenpeace	8
2. Irudia: Eusko Jaurlaritzaren kooperaziorako lan eremua	18
3. Irudia: Eremu geografikoaren araberrako banaketa	19
4. Irudia: Eusko Jaurlaritzak garapenerako kooperazioan edukitako esfortzuaren eboluzioa	19

5. Irudia: Eusko Jaurlaritzak garapenerako kooperazioan kontinente bakoitzari eskaintzen dion laguntza, kontinenteka	20
6. Irudia: Eusko Jaurlaritzak garapenerako kooperazioan eskaintzen duen ekimen kopuru eta diru laguntza, herrialdeka	21
7. Irudia: Sektorearen araberako banaketa	22
8. Irudia: 1981. urtetik 2002 urterarte egunean dolar bat baino gutxiagorekin bizi direnen ehunekoak (%)	28

1.- SARRERA

Munduko Ipar aberats eta Hegoalde txiroaren artean dagoen zulo sakona aski ezaguna da, kolonialismoak sortutakoa eta geroz eta handiagoa dena denbora aurrera joan ahala.

Tamalez, honakoa ez da inolaz ere inongo topikoa; azpi garapenaren garapena da estatu industrializatuek daukaten zereginik garrantzitsuena oraindik. Datuak oso esanguratsuak dira: munduko biztanleriaren %75a Asia, Latinoamerikan eta Afrikan aurkitzen da, munduko aberastasunaren %25a, produkzio industrialaren %12a eta ikerketa zientifikoaren %4a besterik ez dutena, bizitza kalitatearekin zerikusia duten zifra kezkarriak dituztelarik ere gainera. Aldiz, estatu aberatsek biztanleria mundialaren %25arekin soilik edukita, energia mundialaren %70a, metalen %75a, egurraren %85a edota alimentuen %60a besteak beste, kontsumitzen dute.

Iparaldeko eta Hegoaldeko kontinenteen arteko desberdintasun ekonomiko- sozial penagarri honen aurrean, 70. hamarkadan *Nazio Batuen Erakundeak* (gazteleraz, ONU) estatu aberats eta industrializatuek urtero estatu behartsuenei beraien Barne Produktu Gordinaren (BPG) %1 transferitzea aholkatu zuen, garapen jasangarri eta iraunkor bat bilatu nahian; hau da, planetaren ekosistemarentzat gainkarga bat suposatzen ez duen garapen bat alegia.

Nazio Batuen Erakundeak proposatutako zifra horretara iritsi ahal izateko, estatuak beraien BPG-aren %0,7a erabiltzea erabaki zen, Garapenerako Laguntza Ofizial bezala deituko zena; gainontzeko %3a sozietateak eta Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) estali beharko zuten.

Honela, nahiz eta 70. hamarkadarako dagoeneko hainbat GKE existitu, Nazio Batuen Erakundeak botatutako proposamena eta gero hasi zen kooperaziorako erakunde mota hauen hazkunde nabaria ikusten. Honela, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen arabera, 90. hamarkadaren hasieran estatu mailan bakarrik ia 3.000 GKE existitzen ziren dagoeneko.

Hala ere, urte batzuk pasa eta gero Nazio Batuen Erakundeak proposatutako zifra hau estatu oso gutxi betetzen dutela ikusi ahal izan da.

Kooperazioaren ildo honetan jarraituz, “Kirola pertsonak batzeko hizkuntza unibertsala da, berauen jatorri, sinespen erlijioso edota estatus ekonomikoa inporta gabe” (Annan, 2004), edota “kirola bizitzako eskolarik hoberena da” (Ogi, 2003) bezalako adierazpenen babesean, kooperazioaren arloan kirolarekin eta jarduera fisikoarekin lan egiteko interesa gero eta handiago dela ikusi ahal izan da. Autore ezberdinen babesez gainera, garapenerako kooperazioan “kirolaren” potentziala nabarmentzen duten manifestazio garrantzitsuak tratatu eta konferentzia internazionaletan ere badaudela ikusi ahal izango dugu. Ondorioz, arlo honetan kirol proiektuak aurkezten dituzten organizazio mota ezberdinen kopurua hazten doa pixkanaka.

Hala ere, tamalez konpromisoa ez da askotan epe luzerako izaten, eta horregatik espero den eragin erreala konfirmatzeko dago oraindik.

Dokumentu honekin beraz, kirola, kirol praktika, ariketa fisikoa, jarduera fisikoa edota heziketa fisikoa sustatzen duten Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) proposatzen dituzten proiektuen analisi bat egiten da; hasierako lerroetan aipatu den Ipar eta Hegoaldeko Hemisferioaren arteko desberdintasun ekonomiko- sozial hau orekatu nahian, kirolaren eta heziketa fisikoaren sustapenaren bitartez herrialde txiroenetan duen inpaktua eta analisisia egingo da, analisi honekin ondorio batzuk atera nahirik.

Lan honen egitura azaldu nahian, hasteko garapenerako kooperazioaren gai honetan sartzeko marko teorikoa azalduko da, non beharrezkoak eta ongi etorriko diren hainbat datu eta kontzeptu azalduz puntu ezberdinak landuko diren. Ondoren inpaktu sozial handia daukaten 14 GKE-ren arteko analisi eta eztabaida bat egingo da, beraien kooperaziorako laguntza kirola, ariketa fisikoa, jarduera fisikoa edo heziketa fisikoan oinarrituz eskaintzen dutena. Hala ere, nahiz eta berauen funtsa orain aipatutakoa izan, bakearen eraikitzea, transformazio soziala, garapen komunitarioa, osasunaren hobetzea, hezkuntza, biolentzia, minusbalotasuna edota beste hainbat arloen inguruko borrokan ekiten dutela ere ikusi ahal izango da. Bukatzeko azkenik, ateratako ondorioak eta erabilitako bibliografia edukiko dugu.

Aipatzekoa da gai honi buruzko informazioa nahiko eskasa dela eta dagoena ere askotan oso nahasia dela; batzuetan ere hainbat datuei buruzko kontraesanak aurkitzen direla ere esan beharra dago. Aurkitutako nomenklaturarekin hainbat arazo aurkitu dira, hurrengo puntuetan jorratuko delarik honi buruz.

Honetaz gain gainera, lan honek dauzkan limitazioak ere kontutan eduki behar dira. Aipatua izan den bezala, jarduera edo kirol praktika ezberdinetan oinarritzen diren garapenerako kooperazioaren erakundeak ez dira oso ugariak, eta honi buruz lortu den informazioarekin mota hauetako hamalau erakunde besterik analizatzea lortu den bitartean, ateratako emaitzak eta ondorioak honen arabekoak eta tamainakoak direla ulertu behar da.

1.1.- Helburuak

Nahiz eta lan honek aipatutako limitazio horiek eduki, lortu nahi den helburu nagusia heziketa fisiko, jarduera fisiko, ariketa fisiko edota kirolen batean oinarritzen diren GKE ezberdinek lurralde txiroetan aurkezten dituzten proiektu ezberdinen informazioa azalaraztea izango da.

Honela, etorkizunari begira, gaiarekin erlazioa izan ditzaketen proiektuetarako aplikagarritasun bat eduki dezakeela uste da, lan hau mundu honekiko sarrera baten modura ulertu daitekeelako eta bertan zer dagoen eta zer aurkezten den jakinda lan mota edo proiektu sakonagoetan lan egiten hasi daitekeelako.

Helburu nagusiarekin batera lortu nahiko den beste helburuetako bat munduan dagoen desberdintasunaren kontzientzia barneratzea izango da, mundu honek dauzkan hainbesteko lurralde txiroen portzentaje kezkarriak azaleratu nahirik; honen aurka borrokatzeko garapenerako kooperazioak eta jarduera fisiko edo heziketa fisikoak eduki dezakeen paper garrantzitsuaren kontzientzia eta gogoeta pertsonala piztu nahi izango da.

1.2.- Metodologia

Finkaturiko helburuak bete ahal izateko, errebisio bibliografiko bat gauzatu da. Gai konkretu bati buruz garrantzizko ikerketen bilketa, balorazio kritikoa eta sintesia gauzatzeko prozesuan, alborapenak mugatzeko erabilitako estrategia zientifikoak aplikatzen dituen jardunbidea da. Ikerketa primarioen funtsezko informazioaren analisisian eta integrazioan datza, azken finean (Guerra, 2003).

Errebisio sistematikoa baina kalitate baxuagokoa bada ere, edukitako baliabide eta denbora eskasak direla medio, lan honetan egindakoa errebisio narratiboa izango da. Errebisio hau egin ahal izateko E.H.U-ko bibliotekako katalogo eta harpidetutako aldizkari elektronikoak erabili dira, hauek Pub-Med, Dialnet, EBSCOHost, Sportdiscus eta baita Google Academico bilatzaile orokorra izan direlarik.

Aukeratutako gaiak bere baitan kontzeptu asko barneratzen dituen, irizpide pertsonala jarraiki hitz-gako egokienak erabili dira bilaketan. Honetaz gain, aurkitutako artikuluetan azaldutako zenbait hitz-gako erabiltzea aurreikusten da (1.Taula).

1. Taula: Bilaketa bibliografikoan erabilitako hitz-gakoak hiru hizkuntza desberdinetan. Iturria: ekoizpen propioa.

HITZ-GAKOAK		
EUSKARAZ	GAZTELERAZ	INGELESEZ
Kooperazioa	Cooperación	Cooperation
Garapena	Desarrollo	Development
Erakundea	Entidad	Entity
Kirola	Deporte	Sport
Jarduera Fisikoa	Actividad Física	Physical Activity
Ariketa fisikoa	Ejercicio Físico	Physical Exercise
Txiroa	Pobre	Poor
Pobrezia	Pobreza	Poverty
Laguntza	Ayuda	Help
Programa	Programa	Program

2.- GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDE ETA KOOPERAZIOAREN MARKO TEORIKOA

Garapenerako kooperazioaren gai honetan murgiltzen hasteko intentzioarekin berau ulertzeko beharrezkoak izango diren hainbat kontzeptu eta datu aurkeztuko dira honako marko teoriko honetan. Honela, puntu ezberdinetan sailkatuta, kirol praktika batetan oinarritzen diren erakundeen arteko analisia eta eztabaida hobeto ulertzeko baliogarria izango den eta oinarri bezala jokatu dezakeen informazioa azalduko da.

2.1.- Definizioak

GKE (Gobernuz Kanpoko Erakundea, gazteleraz ONG deritzona) bat zer den definitzerako orduan hitz propioaren indefinizio eta zenbait berezitasun edukitzeagatik zail egiten da berau ondo definitzea. Nahiz eta erakunde guztiek antzeko definizio bat proposatzen duten, bakoitzak modu diferentean egiten du. Bat hartzekotan, Nazio Batuen Erakundeak proposatzen duena adieraziko dugu: *gubernuen arteko akordioen bidez sortua ez den nazioarteko edozein erakunderi* deritzo.

Definizio simple horrekin ez geratze arren, GKE batek dauzkan berezko eta amankomuneko 2 aspektu garrantzitsu azalduko ditugu, beste erakunde mota batzuetatik bereizten dituztenak. GKE baten oinarritzko ezaugarria dirua irabazteko izaeraren gabezia da (“character no lucrativo”; mundu anglosaxoian, “non profit organization”). Honek, beste ekimen pribatuetatik berezitatea geratzea ahalbidetzen du, enpresa pribatuak izan daitezkeen moduan, non hauen motibazioa irabazi ekonomikoak lortzea den. Beste ezaugarri garrantzitsu bat daukaten inplikazio eta bokazio sozialean aurkitu dezakegu, zerbitzu ezberdin eta laguntzaren eskaintzarekin behar sozial ezberdinak estali nahi dituztelarik.

GGKE (Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundea) bere aldetik, GKE baten oinarritzko ezaugarriak bilduta hauen oinarritzko helburua gutxiegi edo gaizki garatuak dauden herrien garapenean bultzatzea izango da, laguntza eta atentzioa behar gehien duten biztanleriari eskainita (Picas, 2001).

Garapenari ere bere definizioa eskaini nahirik, pertsonen aukeren handiagotzerako eta giza libertateen hedapenerako prozesua bezala ulertu

daiteke, hazkuntza ekonomiko edota eboluzio teknologiko sinpletik diferentziatuz beraz, askotan honekin bakarrik erlazionatzen dena.

Kooperazioa zer den ondo ulertzeko, akzio hauek suposatzen duten prozesu bilateralak ulertzea beharrezkoa izango da, askotan prozesu unilakal bezala ulertzen baita bakarrik eta baliozko ekarpenak herrialde abantailadunak bakarrik egiten dituztela suposatzen delako (Rato, 2009).

2.2.- Historia eta eboluzioa

Kooperazioa eta GKE-en definizioak eta kontzeptuak interesanteak gertatzen zaizkigun bezala, beraien sorrera eta jasan duten bilakaera denboran zehar beharrezko egiten da gaur egungo gizartean herrialde txiroetan garapenerako kooperazioak duen papera eta izaera ulertzeko.

2.2.1- Nazioartean

Autore ezberdinen arteko desadostasuna egon arren, badirudi XI. mendean GKE-ren ezaugarriak biltzen zituen erakunde bat bazegoela, "Orden de Malta" deritzona. Leku sakratuetaraino bidaiatzen zuten erromesei babesa eskaintzea zen beraien helburua (Baiges et al., 1996).

Nahiz eta hasiera batean GKE-ak bezala ez kontsideratu, XIX. mendean existitzen ziren jada zenbait erakunde humanitario pribatu, urteak pasa ahala GKE-n bihurtuko zirenak. Erakunde mota hauetako lehena *Gurutze Gorria* izan zen, 1863. urtean jaioa izan zena; Henri Dunant-ek sortu zuen, Solferino guduan zaurituak gertatu zirenen sufrimendua eta agoniak bultzatuta. Gudu honen ostean, I. Gerrate Mundialeko laguntza operazioetan ere parte hartu zuen Gurutze Gorriak.

II. Gerrate Mundialean ere honelako hainbat erakunde sortu ziren, gerrateetako hondamendiak arindu nahian. Honela, protagonismo handiena lortu zuten erakundeak erlijiozko kutsua zeukaten erakunde iparramerikarrak izan ziren; "Catholic Relief Service" (1943) esaterako, parrokiak katolikoen akzioak koordinatzen zituen, eta "Church World Service"-ek aldiz, protestanteena. Erakunde laikoen artean, aipatzekoak dira "IRC: International Rescue Committee" (1940) edota "CARE: Cooperation for American Remittances to Europe" (1945), gerrateetako lekuetara paketeria bidaltzen

zituztenak (Ferré, 1995).

1945. urteko Ekainean Nazio Batuen Erakundea (gazteleraz ONU) sortzen da, hainbat agentzia sortzera eraman duena (ACNUR, FAO, OIT, OMS, PAM, PNUD, UNICEF, etab.), munduko bakea ziurtatzeko helburua edukiko dutena, Giza Eskubideak betetzeko borrokatuko dutenak eta mundu osoan bizi kalitatearen hazkuntza bat bultzatuko dutenak (Rato, 2009).

GKE hitza agertzen den lehen dokumentu ofiziala Nazio Batuen gutun batean aurkitu dezakegu (X. kapitulua, 71. artikulua), 1950. urtean. Honela, berezko GKE-aren definizioa duen lehen erakundea sortu zen, "World Vision" izenekoa, Koreako Gatazkarekin kointziditu zuena (Ferré, 1995).

Europako lehen erakunde garrantzitsuena aldiz 1942. urtean sortua izan zen, greziar biztanleriari lagundu ahal izateko. Honen izena "OXFAM: Oxford Committee for Famine Relief" zen.

2.2.2- Estatuan

70. hamarkadan nahiz eta GKE-en hazkundera geldoa izan, geroz eta gehiago sortzen hasi ziren estatu mailan, estatuaren krisiarekin kointzidituz. Honela, zenbat GKE existitzen ziren jakitea ezinezkoa zen, gaur egun gertatzen den bezala; hala ere, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeak zifra bat bota zuen 90. hamarkadaren hasieran, beren barne zituen estatuetan zenbat GKE zeuden esanda: 2.970.

Espanian, nahiz eta garapenerako kontzeptua berandu sartu, orain aipatu dugun antolakundeak berak esanda ere, 1998. urtean 300 GGKE existitzen ziren jada. Gurutze Gorriaren sorketa eta gero, Espainian "Caritas" eta "AMS: Asociación Misionera Seglar" sortu ziren, biak ere 1947. urtean. 1957. urtean, "FERE: Federación Española de Religiosos de la Enseñanza" eta "OCASHA: Obra de Cooperación Apostólica Seglar Hispanoamericana" sortu ziren.

50. hamarkada eta gero, Espainiaren estatua internazionalki pixkanaka irekitzen hasi zen (Nazio Batuen Erakunde barnean sartzea, Banku Mundialean edota Nazioarteko Diru Funtsaren barnean) eta kutsu ezberdin bateko erakundeak argia ikusten hasi ziren. Hala nola, kutsu katolikoa zutenak, jesuitek

sortutako “Intermón” (1956), emakume katolikoek sortutako “Amigos de las Naciones Unidas” (1966), “Medicus Mundi” (1963) edota “Justicia y Paz”, 1968. urtean eraikia.

Biztanleriak zituen kezka sozialak bultzatuta, GKE internazionalak sortzen hasi ziren, arazo internazionaleri lotuta zeudenak eta ez hainbeste politika nazionaleri. Horrela, “Ayuda en Acción” (1980) edota “Paz y Cooperación” (1982) sortu ziren.

Aipatzekoa oso 1971. urtean GREENPEACE erakundearen eraketa; nahiz eta Vancouverren sortua izan, laster estatuan egoitza bat edukiko zuen. Ingurumena babestu nahi duen nazioarteko erakunde honek Alaskan burutzen ari ziren saiakuntza nuklearren aurkako kanpaina batetik sortu zen. Ekintzaileak garaiko erakunde kontserbazionisten aktibismo ezarekin ez ziren konforme eta itsasontzi bat erosi zuten, Greenpeace (“Bake berdea”) izenekoa, saiakuntza nuklearren aurka ekintza zuzenak burutu asmoz. 1970eko hamarkadaren erdialdean, baleen ehizaren aurkako kanpaina bati ekin zioten, besteak beste (1. irudia).



1. Irudia: Greenpeace

Aurrerago GKE profesionalen txanda iritsi zen, eremu profesional zehatz batetara lotuta zeudenak eta gehienbat, osasun eremura lotuak. Hala ere, al baitarien, pedagogo, arkitekto edota baita pailazoeren eremuetara lotuak zeudenak ere agertzen hasi ziren.

1986. urtean Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde Koordinatzailea sortu zen (“gazteleraz CONGDE”), erakunde ezberdinen eta administrazio publikoen artean bitartekari bezala funtzionatuko zuena.

Partidu politikoei oso lotuak zeuden GKE-ak ere sortuko dira; “Solidaridad Internacional” PSOE-rekin lotura edukiko zuena, edota “Fundación Cánovas del Castillo”, PP-rekin.

Espainia mailan eman zen GKE ezberdinen garapen izugarria ez da bakarrik hauen kopuruan islatzen, baizik eta urte gutxitan izugarritzko diru kantitateak biltzeko eta boluntarioak mobilizatzeko gai izan zirelako ere nabaria izan zen. Honela, 1994. urteko udaran Espainiako GKE-ak Ruanda herrirako diru bilketan lehenak ipini ziren Europa mailan, ordurarte emergentzia kasutan diru emaile nagusiak ziren Alemania, Belgika, Frantzia edota Italia atzean utziz. 1998. urtean Mitch urakanak sortutako biktimentzat 17.704 milioi batzea lortu zuten Espainiako GKE ezberdinek (Picas, 2001).

2.2.3- Euskal Autonomi Erkidegoan (E.A.E)

Euskal Autonomi Erkidegoari dagokionez, nahiz eta garapenerako lankidetzaren sorrera- une jakin bat aipatzea zaila izan, esan daiteke 1980ko hamarkadaren erdialdeaz geroztik hasi zela nabaritzen erakundeek nazioarteko solidaritatea eta garapenerako lankidetzaren zirela eta zuten kezka. Lan batzuen arabera, 1987an hasten da euskal udalerrien nazioarteko lankidetzaren, ume sahararrak Donostiako hirira iritsi zirenean eta Abanto Zierbena Nikaraguako San José de Bocay udalerriarekin senidetu zenean, Ambrosio Mogorron osasuneko borondatezko lankidea hil eta gero.

GGKE ezberdinek bultzatuta (Justizia eta Bakea, Medicus Mundi, Amigos del Tercer Mundo eta Manos Unidas) milaka sinadura bateratu zituzten Eusko Jaurlaritzak “Hirugarren Munduko familia behartsuen arazoak konpontzeko” ahalegin serioetan hasteko. Honela, 1985 eta 1987 urte bitartean arazo hau hobetu nahian hainbat laguntza ematen aritu zen Eusko Jaurlaritzak.

E.A.E-ko GKE eta GGKE printzipalei buruzko analisi orokor bat egin nahian, 1987. urtean “Mugarik Gabe” sortu zela ikusi dezakegu, hegoaldeko herrialdeetan formazioan, sentsibilizazioan eta kooperazioan lan egiten

dutenak.

1988. urtean “Mundubat” GGKE sortu zen, gizon eta emakumeekin, asoziazio eta komunitateekin kooperatzen dutenak, eraldaketa sozial eta garapen hobe bat bilatu nahian.

Ondoren, 1988an, euskal 10 erakundek – aurreko laurek eta beste seik – 50.000 sinadura baino gehiago jaso zituzten eta Eusko Legebiltzarrean entregatu zituzten, Eusko Jaurlaritzaren konpromiso esplizitua eskatuz EAEko aurrekontuaren % 0,7 lankidetzara bideratzeko. Haren ondorioz, parlamentu-ekimen bat izan zen Aurrekontu Legean ekitaldi horretako 300 milioi pezetako (1,8 milioi euro) kreditu berezi bat sartzen zuena, “garapenerako laguntza-jarduerak” finantzatzeko.

1988. urtean ere, Euskadiko GGKEen Koordinakundea sortu zen kide diren GGKEen jarduerak ahalik eta koordinatuenak, koherenteenak, egokienak eta errespetuzkoenak direla ziurtatzeko; horrek berekin dakar elkarren artean hausnartzea, eztabaidatzea eta lan egitea. Hasieran 11 kide fundatzailez osatu bazen ere, egungo egunean, 84 GGKE ditu eta 140 egoitza baino gehiago Euskadiko lurralde historikoetan.

Aipaturiko data horien ostean, EAEko gainontzeko erakunderik esanguratsuenak bat eginez joan ziren pixkanaka lankidetzaren zereginarekin. 1990ean FOCAD (“Comisión Gestora del Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo”) eratu zen, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek osatutako funts bateratua, 2004ra arte bere horretan funtzionatu zuena.

1992. urtean “Sos Racismo” sortuko da ere, urte bat lehenago sortu zen plataforma bati jarraipena emateko asmoz; hauek etorkinen eskubideen alde borrokatzen dute, sozietate honetako arraza etniko minoritario hauen alde.

1994. urtean “Alboan” GKE sortzen da, kutsu katolikoa duena eta Latinoamerika, Afrika eta Indiako pertsona xumeak indartzen saiatzen dira hezkuntza eta formakuntza prozesu ezberdinen bidez (Unceta, 2012).

2.3.- Garapenerako Kooperazioa

Puntu honetan asko sakondu nahi gabe, gai honen inguruko hainbat esplikazio eta arau normatiboen babesa esplikatu nahi da.

Alde batetik, aurreko puntuetan garapena eta kooperazioa definituta geratu delarik, akzio hauetan eragin zuzena duten herrialde ezberdinen izendapena bereiztea komenigarria izango da.

Lehen prozesu unilaterial bat bezala ulertuta, laguntza “ematen” zuten eta laguntza “jasotzen” zuten herrialdeen bereizketa bat egiten zen. Herrialde “emaileak” era askotara izendatuak izan dira, hala nola: aberatsak, garatuak, aurreratuak, industrializatuak, lehenengo mundukoak, zentrokoak, okzidentalak, etab. Herrialde “hartaileak” berriz, txiroak, atzeratuak, azpi-garatuak, periferiakoak, hirugarren mundukoak, hegoaldekoak, etab. bezalako izendapenak jaso izan dituzte. Adjektibo guzti hauek joera ideologiko bat daramate (Gurutze Gorria, 2000; Pérez de Armiño, 2000).

Planetako lurralde gehiengoak sufritzen duen desabantaila argiaren eta beste gutxi batzuk dauzkaten abantailen aurrean, aipatutako adjektibo diskriminatzaileak ez erabiltze arren, herrialde “abantailatuak” eta “gutxietsiak” izendatzea komenigarria dela uste da (Rato, 2009).

Bestetik, garapenerako kooperazioak daukan arautegi nazional eta internazionalaren babesa eta izendatzea aipatuko da, laburki (Rato, 2009):

- ***Nazio Batuen Erakundearen Karta***: 1945 urtekoa, garapenerako kooperazioa arlo ekonomiko, sozial, kultural eta humanitarioan erakunde honen lehentasun bezala seinalatzen da.
- ***Europar Batasuneko Tratua***: 1992. urtekoa, Europar Batasuneko printzipio eta helburuak markatzen ditu kooperaziorako arloan, garapenerako eta demokraziaren sendotzerako konpromisoa hartzen.
- ***Kooperazio Internazionalaren Legea***: 1998. urtekoa, gobernu espainolaren lehentasun sektorialak aipatzen dira, kooperaziorako arloan.
- ***Zuzendaritza Plana***: 4 urtetan behin ateratzen dena, kooperazio espainolak segitu beharreko ildo orokorrak markatzen ditu.

2.4.- Kirola Garapenerako Kooperazioan

“Kirola pertsonak batzeko hizkuntza unibertsala da, berauen jatorri, sinespen erlijioso edota estatus ekonomikoa inporta gabe” (Annan, 2004), edota “Kirola bizitzako eskolarik hoberena da” (Ogi, 2003) bezalako adierazpenen babesean, kooperazioaren arloan kirolarekin lan egiteko interesa gero eta handiagoa da. Ondorioz, arlo honetan kirol proiektuak aurkezten dituzten organizazio mota ezberdinen kopurua hazten doa pixkanaka, GGKE direlarik gehienbat (Rato, 2009).

Gainera, UNICEF, Nazio Batuen Erakundeak edota UNESCO-k egindako deklarazio ofizialetan adierazi duten bezala, eta baita kirola eta garapenerako kooperazioari buruzko hainbat konferentzia internazionaletan aipu bezala, “kirola” harraminta oso baliagarri eta efikaza dela bat etorri dira, garapenerako kooperazioan erabilia izateko (Ley, 2006; Rato, 2006).

2.4.1- Kirolaren definizioa

Hainbat erakunde publiko eta pribatuk, tratatu internazional, konferentzia edota erakunde mundialek “kirola”-ren kontzeptua behin eta berriz erabiltzen dutela ikusi daiteke. Horregatik, honi buruz zer ulertzen duten esplikatzea eta kontzeptu hau definitzea beharrezkoa izango da, eta hemendik aurrera aipatuko diren erakunde ezberdinek kirola ulertzeko duten era oso orokorra dutela eta hainbat kontzeptu garrantzitsu eta ezberdinak kontzeptu bakar bat bezala ulertzen dutela ikusi ahal izango da.

Kirolerako Europako Kartan (Europar Batasuna- Europako Kontseilua, 2001) eta *Kirolerako Europako Kartaren* proiektu berrian (Europar Batasuna- Europako Kontseilua, 2002), 2.1 artikuluan zera adierazten da: *“Kirola bezala aktibitate fisiko guztiak ulertuko dira, organizatua den edota beste era bateko partaidetza bat dela medio, eta espresioa edota kondizio fisiko eta psikikoaren hobekuntza izango dutelarik helburutzat, baita erlazio sozialen garapena edota nibel ezberdinetako txapelketa guztien emaitzen lorpena ere”*.

UNICEF-ek dioen bezala, kirola zera izango da: *“Egoera fisiko on, ongizate mental eta interakzio soziala ahalbidetzen duten aktibitate fisikoaren*

edozein modalitate bezala ulertuko da. Aktibitate fisikoaren modalitate horien artean jolasa, aisia, kirol informala (organizatua edota txapelketakoa) eta joko edota kirol autoktonoak aurkitzen dira” (Rato, 2009).

Aipatutako bi definizio hauetan kirolaren barne aktibitate mota oro sartzen direla ikusi eta gero, Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzietako espezializatuak garen bezala eta aktibitate guztiak berdinak ez direla jakinda, arlo honetan dedikazio gehiago eman dieten autoreek kirola nola definitzen duten aipatuko da.

Esaterako, Pierre Parlebasek dioen bezala (Parlebas, 2001), kirola “araututako eta instituzionalizatutako txapelketako egoera motorra” izango da.

Manuel García Ferrandok (García, 1990) aldiz, kirola honela definitzen du: “aktibitate fisiko eta intelektuala, gizatiarra, izaera lehiakorra duena eta arau instituzionalizatuengandik gidatuak”.

Ikusten den bezala, Unicefek eta Europako Kontseiluak emandako definizioek ezer gutxi daukate amankomunean aipatutako bi autoreen definizioekin; lehenengo biek kirola bezala dena ulertzen duten bitartean, autoreek txapelketan oinarritzen diren jarduerak direla eta arau instituzionalizatuen menpe daudela esaten dute.

Beraz, informazioa ulergarriagoa eta zehatzagoa izateko asmotan, kirola bezala jarduera mota guztiak bere barne ez sartzea komenigarriena izango litzake, honela, ariketa fisikoa, jarduera fisikoa, heziketa fisikoa edota kirola bera, kontzeptu ezberdin bezala ulertuta.

Hala ere, lan honetan erakunde ezberdinek aipatzen dutena azalarazi nahi den bezala, askotan beraiek aipatzen duten bezala adieraziko da kirolaren kontzeptua.

2.4.2- Kirola eta kooperazioa, tratatu eta konferentzia ezberdinen babesean

Garapenerako kooperazioan “kirolaren” potentziala nabarmentzen duten manifestazio garrantzitsuenak aipatu nahirik, hauei buruzko laburpen bat egingo da, informazio interesgarria txosten honen eranskinetan txertatuko delarik. Honela, hauek izango dira manifestazio esanguratsuenak:

- **“Maggingen-eko I. Konferentzia Internazionale: Sport and Development” (I. Eranskina):** Suitzako Maggingen herrian 2003. urtean ospatutakoa lehena, eta 2005. urtean bigarrena (Sport and Development II), “kirola” eta kooperazioarekiko konpromezua adierazten da. Kirolak duen aniztasuna errekonozitzen duten bitartean, “kirola” giza eskubide bezala ulertzen dute, baita bizitzarako oinarrizko kapazitateak lortzeko ingurune apropos bezala.
- **“ONU IYSPE Oficce”:** Nazio Batuen Erakundeak 2005. urtea Heziketa Fisikoa eta Kirolaren urtea bezala deklaratu eta gero, urte horretan bertan erakunde honek dokumentu bat publikatu zuen, informazio zabalgarri bezala (II. eranskinean dokumentu honen aspektu garrantzitsuenak laburbiltzen dira).
Bertan, “kirola” garapenerako kooperazioaren barnean leku bat egiten diote. “Kirola” giza garapena ziurtatuko duen herraminta bat bezala funtzionatu dezakeela aipatzen da, eta gobernuek Kirola eta Heziketa Fisikoa beraien kooperazio eta garapen internazionalerako agenda eta politiketan barneratu beharko zutelako dio.
Bestetik, dokumentu honek ere “Milurteko Garapenerako Helburuak” (ODM) bete ahal izateko “kirolak” nola lagundu dezakeen azaltzen da, 8 helburuetako bakoitza banan-ban aipatuz.
- **Nazio Batuen Erakundearen asanblada orokorreko 58/5 erresoluzioa:** Erresoluzio honek gobernu, Nazio Batuen sistemari eta kirol organizazioei zera aholkatzen die:
 - Kirola eta Heziketa Fisikoa Garapenerako programa eta politika ezberdinetan barneratzea, lehen aipatutako ODM-ak betetzeko lagunduko dutenak.
 - Kolektiboki lan egitea eta solidaritatean eta kooperazioan oinarritutako sozietateak eratzea.
 - Kirola eta Heziketa Fisikoa osasuna, hezkuntza, garapen sozial eta kulturalerako herraminta bezala sustatzea, lokal eta nazional mailan.
 - Sozietate zibileko aktore ezberdinen arteko kolaborazioa indartzea.

- **Umearen eskubideen hitzarmena:** 1989. urteko Nazio Batuen Erakundearen batzorde orokor batean eginikoa, umeen eskubideak errekonozitzen dituen lehen instrumentu internazionala bihurtu zen, umeak agente sozial eta eskubide propioen jabe errekonozituta. Testua, 1990. urtean gaindituta izan zen, eta berak osatzen dituen 54 artikuluek umeen eskubide ekonomiko, sozial, kultural, zibil eta politikoak azaltzen ditu.

Beraren aplikazioa gobernuen beharra izango da, baina beste agente batzuek (gurasoak, irakasleak, osasuneko profesionalak, ikertzaileak eta ume berak) eduki beharreko hainbat obligazio eta erresposabilitate esplikatzeko dira. 193 estatu dira gaur egun beraren betetzea berretsi dutenak. Hitzarmen honek esaten duen bezala, *“ume guztiek aisiarako eta jolaserako eskubidea dute, ingurugiro sano eta seguru batean”* (ONU, 2006).

Arlo honekiko manifestazio garrantzitsuenak aipatu eta gero esan beharra dago nahiz eta manifestazio eta tratatu internazionalak egon, eta naiz eta orokorrean geroz eta gai honekiko interes handiagoa egon, interbentziorako metodologia eta estrategia konkretuen falta sumatzen dela, Kirolezko Garapenerako Kooperazioko (KGK) proiektuetan. (Rato, 2009).

2.4.3- “Kiolaren” onurak

Autore ezberdinek kirola eta kooperazioari buruz esaten dutenari erreparatuta, “kirolak” garapenerako kooperazioan eduki ditzakeen efektu positiboak buruzko ebidentzia zientifiko oso urria existitzen dela esan beharra dago.

Hala ere, autore gutxik aipatzen dituzte esperientzia negatiboak arlo honekiko, KGK proiektuen hobekuntza prozesurako aurrera pausu bat izango litzatekeelarik honakoa (Rato, 2009).

Keim (1997, 2003) autoreak esaten duenez ordea, Hegoafrikan egindako ikerketa eta gero “kirolak” inpaktu positiboak egoera jakin batzuetan bakarrik eduki ditzakeela ondorioztatu zuen; honen ikerketan efektu positiboak espero zirenak baino baxuagoak izan ziren.

Nahiz eta inpaktu negatibo zuzenik ez adierazi autoreek, orain aipatutako Keim-enena salbu, hainbat autorek “kirolaren” erabilpena modu egokian erabili behar dela aipatzen dute, berak eduki ditzakeen efektu positibo zein negatiboak direla eta.

Honela, Digel autoreak (1989, 207 orr.) zera esaten du: “Lehen Munduko eta Hirugarren Munduko “kirolaren” arteko topaketak komunikazio interkultural espezial bat sortu dezake, nahiz eta ez beti funtzionatu”.

“Kirolezko” proiektuei buruzko iritzi kritikoenak sektore akademikotik datoz, GKE eta bereziki erakunde internazionalen diskurtso kritiko oso gutxi aurkitzen diren bitartean (Rato & Ley, 2006).

“Kiroalak” garapenerako kooperazioaren barnean eduki ditzakeen efektu positiboak azalarazten duten hainbat eta hainbat dokumentu eta proiektu analizatu ostean, honako hauen gehiengoa erretoriketan besterik ez direla oinarritzen ondorioztatu da; ez dira inongo ebaluaziorik egiten, ezta baieztapen hauek ziurtatzeko datu sendorik eskaintzen ere (Rato, 2009).

Azken honegatik hain zuzen, Nazio Batuen Erakundeak aurkeztutako dokumentuari (Franco, 2003) buruzko daturik ez islatzea erabaki da, ebaluazio zein datu sendorik eskaintzen ez direlako.

Honetaz aparte ere, autoreen arteko diskurtso eta bibliografiari erreparatuta ere iritzi bereizia aurkitu daiteke (Rato & Ley, 2006).

Puntu honetan aipatu den guztiagatik orduan, “kirolaren” efektu positiboak lortzeko estrategia eta modelo metodologiko egokiak erabili behar direla ondorioztatzen da, segun eta zein den lortu nahi dugun helburua. Honela, Keim (1997, 2003), Gieß-Stüber (2005) eta Gieß-Stüber y Blecking (2008)-en ikerketak oso interesgarriak dira (Rato, 2009).

2.5.- E.A.E-ko Kooperazioa

Autore ezberdinek esaten duten bezala, kooperazio euskalduna GGKE ezberdinek emandako bultzadengatik puntakoa izatera iritsi da, 1988. urte geroztik edukitako hazkundea nabaria izan zelarik. E.A.E mailan eman diren kooperaziozko proiektu eta fondoak GGKE-ek kudeatu dituzte hein handi

batean, izaera solidarioa eta beharrezko exekuzioa ahalbidetu duena. Hala ere, pobrezia eta ezberdintasunaren aldeko borroka honetan agente ezberdinen laguntza faltan bota izan dela nabaria da, administrazioak direla kasu.

Honela, nahiz eta gorakada nabaria eduki 90. hamarkadatik aurrera, eta nahiz eta garapenerako hobekuntza nahi hori eta kooperaziorako forma berriak bilatu nahi izan, erabili nahi izan diren instrumentuak ez dira egokienak izan eta azkenik Gobernuak egindako deklarazioak hutsean geratu direla ikusi ahal izan da. Honela, azken urteetan kooperazioak jasaten ari zuen eboluzio positiboa pixka bat moteldu egin da.

Hala ere, nahiz eta instrumentu egokienak erabili ez izan, Eusko Jaurlaritzak kooperaziorako eduki duen konpromezua honetarako erabiltzen duen aurrekontuan ikusi daiteke. Azken 25 urteetan euskal kooperaziok mila milioi euro inguru erabili ditu hainbat garapenerako akzioak finantzatzeko (Goiria, 2013).

Kooperazio euskaldunak izan duen eta oraindik duen konpromezua islatu nahian, Eusko Jaurlaritzak garapenerako kooperazioari eskieni dion esfortzuari buruzko hainbat datu eta grafiko interesgarri eskainiko dira, honi buruzko ideia orokor bat lortzeko asmotan. Honela, arlo honekiko erakunde pribatuek daukaten konpromezuan ez gara murgilduko atal honetan.

Jarraian agertuko diren datu guzti hauek Eusko Jaurlaritzaren “2008-2011ko Garapen Lankidetzarako Gida Plan Estrategiko”-tik lortuak izango dira (Vasco, 2008).

Honako plan honen laburpen orokor bat egin nahian, nabarmentzeko datuetako bat honakoa da: Eusko Jaurlaritzak plan honetarako eskaintzen duen aurrekontuaren %25a behintzat, Afrikara zuzendu beharko dela aipatzen da.

Bestetik, Foru Aldundiek eta Udaletxeek GGKE ezberdinek proposatzen dituzten proiektuak aurrera eramanez ahal izateko laguntzak gero eta ugariagoak dira. Aipatzekoa kasu honetan ere Arabako Foru Aldundiak kooperaziorako duen aurrekontuaren 1/3a Afrikako kontinentera ematen duela (Bidaguren, 2010).

Hasteko, Eusko Jaurlaritzak munduko hainbat tokitan burutzen ditu garapenerako kooperaziozko proiektu ezberdinak, honako irudi honetan ikusi

daitekeen bezala:


- **ZENTRO AMERIKAN eta KARIBEAN:** Mexiko, Guatemala, Kuba, Honduras, Nikaragua eta El Salvador.
- **LATINOAMERIKAN:** Venezuela, Kolonbia, Ekuador, Peru, Bolibia eta Brasil.
- **ASIAN:** India eta Palestina.
- **AFRIKAN:** RASD, Senegal, Costa de Marfil, Kongo, Ruanda, Uganda, Burundi, Angola eta Mozambique.



2. Irudia: Eusko Jaurlaritzaren kooperaziorako lan eremua. Iturria: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (http://www.elankidetza.euskadi.net/x63-mapa/es/contenidos/informacion/mapa_vasco/eu_mapa_vas/eu/index.html)


Eusko Jaurlaritzak kooperazioko proiektuak aurkezteko erabiltzen dituzten lan eremu guztiak jakin eta gero, hurrengo grafikoan kontinente bakoitzari eskaintzen dion laguntzaren portzentajea ikusi ahal izango da. Laguntzaren ehuneko gehiena Zentro Amerikak eta Karibeak eramaten du (%41), Hego Amerikak jarraitzen diolarik (%31). Nabarmentzekoa ere Asia kontinenteari eskaintzen zaion diru laguntza eskasa (%7).

EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERAKO BANAKETA



3. Irudia: Eremu geografikoaren arabera banaketa. Iturria: 2008- 2011ko Garapen Lankidetzarako Gida Plan Estrategikoa.

Hurrengo grafikoan Eusko Jaurlaritzak garapenerako kooperaziorako eskaini duen diru kopuruaren eboluzioa ikusi daiteke, 1985. urtetik 2007. urte bitartekoa. Aurreko lerroetan aipatu dena ondo islatzen du grafiko honek: 90. hamarkadan gorakada nabarmena eduki zuela Eusko Jaurlaritzak bultzatutako laguntzak, baina hurrengo dekadaren gorakada hori moteldu egin dela alegia.



4. Irudia: Eusko Jaurlaritzak garapenerako kooperazioan edikitako esfortzuaren eboluzioa. Iturria: 2008- 2011ko Garapen Lankidetzarako Gida Plan Estrategikoa.

Xede nagusizat egiturazko pobrezia desagerraraztea duen lankidetzapolitika eraldatzailea, kalitatezkoa, koordinatua eta koherentea garatzeko helburuarekin, 23 herrialde lehenetsi dira haien *giza garapeneko indizearen* (IDH) arabera, herrialde batek oinarritzko hiru dimentsiotan - bizitza luzea eta

osasuntsua izatea, hezkuntza jasotzeko aukerak eta bizitza-maila duina- batez beste lortutako aurrerapena neurtzen duena.

23 herrialde horietatik 7k (Brasil, Kolonbia, Kuba, Ekuador, Mexiko, Peru eta Venezuela) giza garapeneko indize handia dute, 8k (Angola, Bolivia, El Salvador, Guatemala, Honduras, India, Nikaragua eta Uganda) giza garapeneko indize ertaina dute, eta 5ek (Burundi, Boli Kosta, Mozambique, Kongoko Errepublika Demokratikoa eta Ruanda, guztiak Afrikan) giza garapeneko indize txikia, hurrenez hurren.

Hurrengo grafikoetan kontinente bakoitzari lehenik, eta herrialde bakoitzari bigarren grafikoan, ematen zaion aurrekontuaren zenbateko zehatza eta baita portzentajea ere ikusi ahal izango da.

Lehenengo grafikoan kontinente bakoitzari eskaintzen zaion diru kopuruari erreparatzen bazaio, kontinente bakoitzean dagoen ekimen kopuruarekin erlazionatuta dagoela ikusi daiteke, logikoa den bezala; geroz eta ekimen edo proiektu gehiago eduki, orduan eta aurrekontu handiagoa edukiko dute.



5. Irudia: Eusko Jaurlaritzak garapenerako kooperazioan kontinente bakoitzari eskaintzen dion laguntza, kontinenteka. Iturria: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia


Herrialdea	Ekimenak	Zenbatekoa	% ⁽¹⁾
Angola	1	542.899,92 €	% 0,31
Bolivia	34	10.310.826,43 €	% 5,89
Brasil	14	4.472.613,11 €	% 2,55
Burundi	3	3.173.383,99 €	% 1,81
Kolonbia	23	7.990.547,71 €	% 1,48
Boli Kosta	4	2.439.437,18 €	% 1,39
Kuba	23	7.682.171,73 €	% 4,39
Ekuador	41	11.286.808,67 €	% 6,45
El Salvador	27	10.057.135,78 €	% 5,74
Guatemala	26	13.134.488,13 €	% 7,50
Honduras	11	1.865.773,70 €	% 1,07
India	7	2.810.766,91 €	% 1,61
Mexiko	25	4.487.751,47 €	% 2,56
Mozambique	12	3.051.794,37 €	% 1,74
Nikaragua	16	5.141.233,11 €	% 2,94
Peru	56	25.529.684,79 €	% 14,58
Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa	6	1.997.796,30 €	% 1,14
Kongoko Errepublika Demokratikoa	24	13.195.677,74 €	% 7,54
Ruanda	3	2.586.527,99 €	% 1,48
Senegal	6	2.429.984,47 €	% 1,39
Palestinako Lurralde Okupatuak	18	4.666.508,38 €	% 2,67
Uganda	2	848.839,07 €	% 0,48
Venezuela	9	886.477,88 €	% 0,51
GUZTIRA	391	140.589.128,83 €	% 77,22

6. Irudia: Eusko Jaurlaritzak garapenerako kooperazioan eskaintzen duen ekimen kopuru eta diru laguntza, herrialdeka. Iturria: 2008- 2011ko Garapen Lankidetzarako Gida Plan Estrategikoa.

Azken grafiko honetan ikusi dezakegun bezala, proiektu guztien ehunekoa gehituta, %77,22a lortzen da bakarrik. Honek esan nahi du Eusko Jaurlaritzak garapenerako kooperaziorako erabiltzen duen aurrekontuaren %77,22 proiektuak bultzatzeko erabiltzen duela. Falta den gainontzekoa hainbat ekimen ezberdinetarako erabiltzen da, hitzarmenak edota ekintza humanitarioko estrategiak izan daitezkeen bezala, besteak beste.

Hurrengo grafikoan ordea, aurrekontuaren ehunekoa sektoreen arabera agertzen da. Ikusi daitezkeen bezala, ehuneko gehiengoa ekonomiaren

garapenerako erabiltzen da (%30), bigarrena hezkuntza (%19) izanik eta hirugarrena, osasuna (%14) (Vasco, 2008).



7. Irudia: Sektorearen arabeko banaketa. Iturria: 2008- 2011ko Garapen Lankidetzarako Gida Plan Estrategikoa.

Lan honen funtsetako bat aurretik esan bezala, erakunde ezberdinek herrialde txiroen garapenerako jarduera fisiko edota kirolaren arloan eskaintzen dituzten proiektuen analisia azalaraztea den bitartean, Eusko Jaurlaritzaren datuetan ikusi ahal izan den bezala, ez da jarduera fisiko, ariketa fisiko, kirol praktika, heziketa fisiko edota antzekoak izan daitezkeen terminoen arabeko daturik azalarazten.

Beraz, ikuspuntu zorrotz batetik begiratuta “kirolak” emakumeen ahalduntzean, giza eskubideetan, hezkuntzan, osasunean, oinarrizko gizarte-azpiegiturretan, tokiko boterean edota tokiko garapen ekonomikoaren arloetan baliozgarria dela pentsa liteke.

Arestian aipatu den bezala, hainbat autorek garapenerako kooperazioko proiektuetan “kirolak” eduki ditzakeen efektu positiboak buruz mintzo diren bitartean, Eusko Jaurlaritza den bezalako erakunde garrantzitsu batek berauen datuek ez dute honen inguruko ezer aipatzen. Autore ezberdinek esaten dutenaren babespean eta honelako ikerketa gutxi hauek direla eta, ildo honetako datu gehiago eta zehatzagoak ahalbidetu nahian “kirolari” toki bat egitea komenigarriena izango litzatekeela uste da.

3.- “KIROLA” KOOPERAZIOKO PROGRAMETAN BARNERATZEN DUTEN ERAKUNDE EZBERDINEN ANALISIA ETA EZTABAIDA

Honako atal honetan Heziketa Fisikoa (H.F), ariketa fisikoa, jarduera fisikoa edota kirolaren baten sustapenean oinarritzen diren hainbat GKE eta GGKE ezberdinen analisi bat egin da.

Kirolaren definizioa aipatu den atalean esan bezala, “kirola” aipatzerako orduan orain esandako termino guztiak barne sartzen direla esan dugu askotan. Honako analisia egin ahal izateko ere, informazioaren bilaketan erakunde askok “kirolaren” terminoa erabiltzen dutela ikusi izan dugu, analisi egoki baten eta ondorio sendo batzuk lortzeko zailtasuna areagotuz horrela.




“Kirolaren” terminoaz aparte, nomenklaturarekin beste hainbat arazo aurkitu dira. Azken finean erakunde bakoitzak jarduera bakoitza modu ezberdin batean izendatzen du, eta aurrerago ikusi ahal izango dugun bezala, aisiko jarduerak, jarduera anitzeko kirolak edota joko- jolasen artean esaterako, zailtasunak aurkitu dira erakunde bakoitzak multzo horietan zein jarduera mota barneratzen dituen jakiteko.

Beraz, nomenklatura modu ezberdinean izendatzearen arazo honek ez ditu gauzak erraztu. Gainera, mota honetako erakundeen bilaketa sakon bat egin eta gero, kirol praktikan oinarritzen diren GKE edo GGKE-ren inguruko informazio asko ez dagoela ikusi ahal izan da.

Hala ere, azkenik 14 GKE eta GGKE analizatzea lortu da. 14 horietatik bat E.A.Eri dagokio, bost estatu mailakoak izango dira eta gainontzeko zortziak internazionalak dira (2. Taula).

2. Taula: Erakunde ezberdinen datu orokorrak. Iturria: Ekoizpen propioa.

ERAKUNDEAREN IZENA	MOTA	ERATZE URTEA
ETIOPIA/AUTOPIA	GKE	2009
RED DEPORTE Y COOPERACIÓN	GGKE	1999
DEPORTE Y DESARROLLO	GGKE	2004
UNICEF	ONU agentzia	1946
EDUCACIÓN, DEPORTE Y COOPERACIÓN	GGKE	1997
FUNDACIÓN DEPORTE Y DESAFÍO	GKE	1998
SPORT IN ACTION	GKE	1998
ATHLETES UNITED FOR PEACE	GKE	1998
GLOBAL SPORTS ALIANCE (GSA)	GKE	1999
INTERNATIONAL SPORT AND CULTURE ASSOCIATION (ISCA)	GKE	1995
PEACE PLAYER INTERNATIONAL	GKE	2001
RIGHT TO PLAY	GKE	2000
SCORE (SPORTS COACHE´S OUT REACH)	GKE	1991
SPORT SANS FRONTIERES	GKE	1999

-  : E.A.E-koa
-  : Espainiakoa
-  : Internazionalak

Aurkeztu berri den taula honetan ikusi ahal den bezala, ezkerreko zutabearen erakundearen izenak agertzen dira, erdikoan zein erakunde motari dagokion eta eskuineko zutabearen, bakoitzaren eratze data erakusten da.

Erakunde motei erreparatzen bada lehenik, UNICEF besteengandik ezberdina dela ikusi ahal da. UNICEF erakundea Nazio Batuen Erakundearen agentzia bat da, GKE-ren eboluzioa esplikatu den atalean azaldu bezala. Nahiz eta berezko GKE edota GGKE bat ez izan, internazional mailan duen garrantziagatik alde batetik, eta berauen proiektuen zati bat “kirolean” oinarritzen direnagatik bestetik, analizatu beharreko erakundearen artean

barneratzea erabaki da.


Bigarrenik, erakundeen eratze datei erreparatzen bada, gehiengoa 90. hamarkadan sortuak izan zirela ikusten da. E.A.E-ko kooperazioa azaldu den atalean agertu eta esan bezala, kooperazio euskaldunak 90. hamarkadatik aurrera gutxi gora behera eduki zuen gorakada nabarmena. Eratze data hauek ikusterako orduan beraz, badirudi E.A.E mailan garapenerako kooperazioa hazkuntza prozesuan zebilen bitartean, “kirolean” oinarritzen ziren estatuko eta internazional mailako erakunde ezberdinek ere berauen sorrera eta hazkuntza hasi zutela.

E.A.E mailako bakarra analizatu denez soilik, ezin dugu esan EtiopiaUtopia erakundea 2009. urtean sortu izanagatik E.A.E mailan erakunde mota hauek beranduago hasi zutela beraien sortzea.

Erakunde hauek berauen proiektuak non eskaintzen dituzten islatu nahian, hurrengo taula eta grafikoan proiektuak kontinenteka sailkatu dira, hauen portzentajeak jakin ahal izanda honela.

3. Taula: Lan- eremua. Iturria: Ekoizpen propioa.

LAN- EREMUA	ZENBATEKOA
Afrika	10
Latinoamerika	7
Asia	7
Europa	7
Ipar Amerika	4
Amerika Zentrala	3



1. Grafikoa: Lan- eremua. Iturria: Ekoizpen propioa.

